



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialari irekitako zehapen-prozedura itxi du itundutako amaieraren bidez, hau da, zehapenik gabe eta eragileek jarduera bukatuz.

Bilbo, 2014ko ekainaren 30a. LEAko Lehiaren Euskal Kontseiluak Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialari irekitako zehapen-prozeduraren itundutako amaiera ebatzi du, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 52. artikulua xedatutakoari jarraiki.

Zehapen-prozedura hasi zen LEAko Ikerketa Zuzendaritzak jakin zuelako — Elkargoaren web gunean iragarritako informazioaren bidez— Elkargo horren barruan Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Tekniko Peritu Judizialen Elkarte bat sortu zutela, auzitegietara bidali beharreko perituen zerrendak osatzeko. Elkartekide izateko eskakizunak Legeak xedatutakoak baino gogorragoak ziren eta lanbide-jarduera bidegabeki murriztu zezaketen. Horrek guztiak, ondorioz, 15/2007 Legeak xedatutakoa urratu zezakeen.

Zehapen-prozedura irekita, Elkargoak itundutako amaiera lortzeko jarduerak hastea eskatu zuen. Zehapen-prozedura amaitzeko era hau ondokoan datza: ustezko arau-hausleak konpromiso batzuk proposatu behar ditu espedientea irekitzea eragin duten jokabideek lehian zituzten ondorioak konpontzeko, eta konpromiso horiekin interes publikoa bermatu behar da.

LEAk uste du Elkargoak aurkeztutako konpromisoek gaitasuna dutela espedientea irekitzea eragin duten jokabideek lehian zituzten ondorioak konpontzeko eta interes publikoa behar beste bermatzen dutela. Ondorioz, zehapen-prozeduraren itundutako amaiera ebatzi du.